



NEWSLETTER

FABRIKAZIO AURRERATUAREN ETORKIZUNA

“
Fabrikazio aurreratuaren etorkizun jasagarria sortzeko lanean ari den nazioarteko proiektua, ikaslearengandik hasita

 **Ongi etorri LCAMPen buletinera!**

Edizio honetan informazio gehiago lortuko duzu LCAMPek tokiko eta eskualdeko alde interesdunekin duen lankidetzari buruz, gure azken jarduerari buruz (Konpetentzien eta Enpleguaren Behatokia, Berrikuntza Irekiko Komunitatea, Aliantza Estrategikoa eta LHko Ikas Fabrikak) eta LCAMPek fabrikazio aurreratuaren arloan ikasleei laguntzen dien moduari buruz.

Gainera, Kanadara joango gara, eta Camosun Collegeko zuzendariarekin hitz egingo dugu Victoria BCn.

Azkenik, LCAMPerek gure azken jarduerak aurkezteko aukera izan zuten ekitaldiak ezagutuko dituzu.

Gozatuko duzula espero dugu!

ZENBAKI HONETAN:



-  **Berriak**
-  **Tokiko alde interesdunen ekitaldiak**
-  **Jarduerak**
-  **Protagonistak**
-  **LCAMP munduan**
-  **Ezagutu taldea**

LCAMPek 4.0 industriari lotutako etorkizuneko gaitasunak eskaintzeko lanean dihardu, proiektuaren asmoa fabrikazio aurreratuaren sektorean diharduten LHko zentroentzat eta enpresentzat ezagutzaren, sorkuntzaren, elkartrukearen, lankidetzaren eta zerbitzu-prestazioaren Europako erreferentziarako plataforma izatea baita.

BERRIAK

LCAMP-ERRAK 2024AREN HASIERAN BILDUKO DIRA MILANEN

LCAMP – Lanbide Heziketako Bikaintasun Zentroetarako (CovEs) Ikaslea Ardatz duen Fabrikazio Aurreratuko Plataforma proiektuaren hurrengo bilera 2024ko urtarilaren 15etik 17ra bitartean egingo da Milanen (Italia). [MADE Competence Center Industry 4.0](#) eta [AFIL - Associazione Fabbrica Intelligente Lombardia](#) dira antolatzaileak.

ADMA metodologiari buruzko prestakuntza-ikastaro bat eta ibilbide bat MADE arlo teknologikoetatik barne hartzen ditu programak.



BAZKIDE TRANSNAZIONALEN HIRUGARREN BILERA PRESENTZIALA TURKIAN

2023ko ekainaren 14 eta 15ean, [Hezkuntza Nazionaleko Kocaeli](#)ko Zuzendaritza Probintzialak LCAMPeko bazkide Gebkim Vocational and Technical Anatolian High School eta GEBKİM OIZekin lankidetzan, bazkide transnacionalen hirugarren bilera presentziala antolatu zuen.

Bi jardunaldi horiek aukera paregabea izan ziren LCAMPeko bazkideek nazioarteko partzuergo osoan loturak sendotzeko, eta mugarri bat ezarri zuten proiektuaren aurrerapenari buruz egindako balantzeari dagokionez, hasi zenetik urtebete igaro ondoren.



FABRIKAZIOAREN ERALDAKETARI BURUZKO TXOSTENA: TREBETASUN BERDE ETA DIGITALAK BERE EGITEA (CECIMO, 2023)

LCAMPeko bazkideak eta [CECIMO - Fabrikazio Teknologien Europako Elkarte](#) lankidetzan aritu ziren CECIMOren "Transformation of Manufacturing: Embracing digital and green skills" (Fabrikazioaren eraldaketa: kompetentzia digitalak eta berdeak eskuratzea) txostenaren argitalpenaren testuinguruan. Fabrikazioaren sektorearen kompetentziei buruzko CECIMO txostenaren garrantzia dela eta, LCAMPeko ikerketa-taldeak erantzun egin du!

Gainera, Fabrikazio Aurreratuaren Espainiako Klusterra, Makina Erremintaren Fabrikatzaileen Elkarteak (AFM, Espainia) eta LCAMPeko bazkideak osatua, CECIMoko kideetako bat da.

Irakurri gehiago 



Irakurri gehiago 



TOKIKO ALDE INTERESDUNEN EKITALDIAK


Proiektuaren bizitzan zehar, bazkideek hainbat jarduera antolatzen dituzte, besteak beste xede-taldeak, web-mintegiak eta ekitaldi presentzialak... alde interesdunen ekarpenak eta ideiak biltzeko. Jarraian, eskualde-mailako lehen ekitaldien laburpena aurkituko duzu.



MILANEN...

2023ko maiatzaren 31n eta azaroaren 21ean, LCAMPekeo bazkide italiar [AFIL- Associazione Fabbrica Intelligente Lombardia](#) eta [MADE Competence Center Industry 4.0](#) bi ekitaldiren antolatzaileak izan ziren (bata hibridoa eta bestea birtuala) Lombardiako fabrikazio-enpresa txiki eta ertainei trantsizio digital eta berdeetarako EBren aukerak aurkezteko, arreta berezia jarriz ADMA Trans4MErs eta LCAMP proiektuetan.

[Irakurri gehiago](#) 



TOULOUSEN...

2023ko urriaren 19an, LCAMPekeo bazkide [Campus des Métiers et des Qualifications d'excellence Industrie du futur \(CMQ\)](#) eta [Mécanic Vallée \(MV\)](#) tokiko alde interesdunen eskualdeko lehen ekitaldiaren antolatzaileak izan ziren [SIANE fair](#) (Toulouse) azokan.

[Irakurri gehiago](#) 




ESLOVENIAN...

Berriki, **School Center Nova Gorica**k ekitaldi interesgarri bat hartu du. [Lanbide Heziketako Goi-mailako Zentroen Elkartea \(Skupnost VSS\)](#) izan da antolatzailea, eta LHko azken ikasturteko ikasleak eta Eslovenia osoko industriako 20 alde interesdun bertaratu ziren.

[Irakurri gehiago](#) 



TOKIKO ALDE INTERESDUNEN EKITALDIAK



ALEMANIAN...

2023ko azaroaren 30ean, LCAMPEko bazkide alemaniar [DHBW –Duale Hochschule Baden-Württemberg](#) eta [FORCAM](#)ek prestakuntza industrialaren sektoreko sei aditu gonbidatu zituzten, DHBW Heidenheimetik beren ekitaldi birtualean parte har zezaten.

[Irakurri gehiago](#)



TURKIAN...

2023ko abenduaren 13an, proiektuak urrats garrantzitsua eman zuen tokiko alde interesdun turkiarrak web mintegi bat egiteko gune birtual batean biltzean. [Hezkuntza Nazionaleko Kocaeliko Zuzendaritza Probintziala](#) (KPDONE) eta [Kocaeli Gebze V \(Kimika\) Gune Industrial Antolatu Espezializatua \(GEBKIM OIZ\)](#) izan ziren antolatzaileak. 40 bat kideren parte-hartze dinamikoarekin, Europa Horizontea Erasmus+ ekimenak bultzatzen duen lankidetzeta-sena erakutsi zuen ekitaldiak.

[Irakurri gehiago](#)



EUSKADIN...

2023ko abenduaren 15ean, [Tknikak](#) fabrikazio aurreratuarekin eta 4.0 industriarekin lotutako Lanbide Heziketako hainbat euskal zentrotako 37 ordezkari hartu zituen, LCAMP proiektuari buruzko ezagutzan sakontzeko Bildu zirenak.

Hiru orduko ekitaldian, parte-hartzaileek LHko ikastetxeetan internazionalizazioa, berrikuntza eta kalitatezko hezkuntza bultzatzen jarraitzeko horrelako aliantza batekin bat egitearen abantailak eztabaidatu zituzten.

[Irakurri gehiago](#)

JARDUERAK

 NEW REPORT a skills and jobs observatory on Advanced Manufacturing tendencies from a VET perspective	 NEW REPORT an open innovation community of best practices to articulate applied research actions	 learner-centric training for advanced manufacturing	 NEW REPORT collaborative learning factories	 SME – VET connection
--	--	---	--	---------------------------------

KONPETENTZIEN ETA ENPLEGUAREN BEHATOKIA

LCAMP behatokiak Fabrikazio Aurreratuko konpetentzien egungo joerei, arrakalei eta konpetentzien aurreikuspeni buruzko informazio eguneratua eta eskuragarria eman nahi du.

TXOSTEN BERRIA

Behatokiaren TXOSTEN BERRIA 20 egilek landu dute, eta sektorearen barruan Fabrikazio Aurreratuaren etorkizuneko joera eta aurreikuspen nagusietako batzuk aurkezten ditu. Europa osoko 45 adituk ebaluatu eta baliozkotu dute txostena.



TXOSTENA

BERRIKUNTZA IREKIKO KOMUNITATEA

Berrikuntza Irekiko Komunitatearen helburua ikerketa eta garapen aplikatuko proiektuak sustatzea da, batez ere Bikaintasun Profesionaleko Zentroen eta Enpresa Txiki eta Ertainen artean.

TXOSTEN BERRIA

LCAMP Berrikuntza Irekiko Komunitatearen funtzionamendua. Lehenik, Komunitatearentzako elementuak aztertzen dira, jakiteko elementu horiek nola arituko diren elkarren artean interakzioan, modu holistiko batean, berrikuntza LH zentroetara eta ETEetara eramateko.



TXOSTENA

ELKARLANEKO IKAS-FABRIKAK

Collaborative Learning Factory (CLF) elkarlaneko ikaskuntzaren printzipioak eta ikasteko esperientzia hobetzeko fabrika baten antzeko ingurune baten egitura biltzen dituen kontzeptua da. LCAMP izango da Fabrikazio Aurreratuko lehenengo Elkarlaneko Ikas Fabrika EBn, eta, ziurrenik, baita mundu mailan ere.

TXOSTEN BERRIA

Txostenak bi zati ditu. Lehenengoak Ikas Fabrikak (Learning Factories LF) sortzeko LHko zentroetan dauden ikuspegi desberdinak aztertzen ditu, baita horien testuinguru desberdinak eta hainbat herrialdetan (Frantzia, Alemania, Italia, Herbehereak, Eslovenia, Espainia, Suedia, Turkia eta Kanada) dituzten erronkak ere. Bigarrenak ikaskuntza fisikoaren agertokiaren ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu.



TXOSTENA

ALIANZTA ESTRATEGIKOA

Aliantzak LHko (Lanbide Heziketa) hornitzaileak, industriako alde interesdunak eta, jakina, arlo honetako ikasleak biltzen ditu. Aliantzak ikaslea ardatz duen ikuspegi batekin jardungo du. Horrek esan nahi du lehentasuna ematen diela ikasleen beharrei eta garapenari, haien ekimenen aitzindaritzan kokatuz.

Aliantzaren helburu orokorrak honako hauek dira: talentua garatzea fabrikazio aurreratuaren arloan, konpetentzien arteko aldeak murriztea hezkuntzaren eta prestakuntzaren bidez; kideen artean ezagutzak eta esperientzia transferitzea konpetentziak garatzeko eta etorkizun jasangarria eraikitzea fabrikazio aurreraturako.



ELKARTU GUREKIN

PROTAGONISTAK

IKASLEAK



FABRIKAZIO AURRERATUKO ESPEZIALIZAZIOKO IKASLEAK LCAMP ROBOTEAN LANEAN

Miguel Altuna LHII LHko zentroan (Bergara, Euskadi) ikasleek Fabrikazio Aurreratuko ikastaroak egiten dituzte. Konpetentzia horiek lantzeko, espezialitate horretako irakasleek LCAMP proiektuko Elkarlaneko Ikas Fabrikak (Collaborative Learning Factoryk CLF) emandako agertokia hartu dute ikasteko agertoki onentzat. Egoera horrek aukera ematen du benetako produktu eta prozesu batean lan egiteko, enpresa-munduaren errealitatekin oso hurbil. CLF Miguel Altuna LHII buru duen proiektuaren WP6aren parte da.




 MIGUEL
 ALTUNA
 Lanbide
 Heziketa

[Irakurri gehiago](#) 

EUROPATIK HARANTZ



LCAMPEN EZ DUGU INTERESIK FABRIKAZIOKO AUTOMATAK PRESTATZEKO, AURREZ ZEHAZTUTAKO ZEREGINAK EGIN DITZATEN ETA AGINDUTAKO FUNTZIO SOZIAL ETA EKONOMIKOAK BETE DITZATEN; HORREN ORDEZ, FABRIKAZIOKO HEZKUNTZA MOTA BERRI BAT ERAIKITZEN AHALEGINTZEN ARI GARA, GURE IKASLEEN IKUSPEGI KRITIKOA ETA JARRERA SORTZAILEA OSPATZEKO. HALA, ESKATU EGITEN DIEGU, IKASKETA-PLAN BATETIK IKASI EZ EZIK, PLAN HORRI EKARPENAK EGITEKO, KRITIKATZEKO, EURENA EGITEKO ERE, IKASLEAREN, IRAKASLEAREN, INDUSTRIAREN ETA GIZARTEAREN ONERAKO ERE IZAN DADIN.



Dr Richard Gale



Ikaslea ardatz duen Europako lehen plataforma eraikitzeke, LCAMP EBkoak ez diren herrialdeetako ikerketa aplikatuko espezialistekin elkartu zen, besteak beste Kanadako Camosun College-rekin.

“Protagonistak...” edizio honetan, Richard Gale doktorearekin hitz egin dugu. Camosun Innovates fabrikazio aurreratuko ikerketa- eta garapen-zentroa da, eta ikasleen, irakasleen, ETEen, PFNen eta sektore publikoaren beharrei erantzuten die, Camosun Collegen, Victoria BCn, baita LCAMPen parte hartzen duten LHko 20 unibertsitateetako batean ere.

[Dr. Richard Galerekin hizketan](#) 

LCAMP MUNDUAN



LCAMP TRUKEA SUEDEIAKO ESQUALDEETAKO ADITUEKIN KONPETENTZIEN ARLOAN

2023ko irailaren 22an, LCAMPeko bazkide [Simumatik](#) Västsvenska EU-konferentsen 2023n (EBren konferentzia Suedia mendebaldean) proiektua aurkeztera gonbidatu zuten, Skövde eskualdean (Suedia). Konferentzia hau ezagutza- eta inspirazio-iturria da Europako ikuspegi batetik toki- eta eskualde-garapenerako lan egiten duten lankideentzat eta erabakietan parte hartzen dutenentzat. LCAMP "learning factory" (ikas-fabrika) atalean parte hartzera gonbidatua izan zen.



[Irakurri gehiago](#) 

EB 2023ko BIKAINTRASUN PROFESIONALAREN FOROA

Aurten ere, EBko Bikaintasun Profesionalaren Foro arrakastatsu batek LHren zale amorratuak bildu zituen Herbehereetan. LHren berrikuntzak aurrera egin du Europako Batzordearen ekimenari esker, Lanbide Heziketako Bikaintasun Zentroetan.



[Irakurri gehiago](#) 

FABRIKAZIO AURRERATUKO ETA MAKINA-ERREMINTAKO KONGRESUA

[Fabrikazio Aurreratuko eta Makina-Erremintako Kongresuaren XXIII. edizioa](#) Donostian egin zen urriaren 25etik 27ra. Bertan, fabrikazio aurreratuaren eta digitalaren arloko enpresa, zentro teknologiko eta unibertsitateetatik etorritako 550 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten.



[Irakurri gehiago](#) 

EB 2023 FORO SOZIALA, ADIMEN ARTIFIZIALA ETA LAN-MUNDUA AZTERGAI

2023ko azaroaren 16 eta 17an, **EARLALLEK** Enpleguaren eta Gizarte Eskubideen Europako Foroaren bigarren edizioan parte hartu zuen, Europako Batzordearen Enplegu, Gai Sozial eta Inklusioko Zuzendaritza Nagusiak Bruselan antolatuan.

Parte-hartzaileek berrikuntza sozialari eta AIri buruzko lau saio paralelotan jardun zuten, baita datuek eta kompetentzia digitalek Konpetentzien Europako Urtean betetzen duten rolari buruzkoan ere. Iñigo Araizteguik (**Internazionalizazioko Zuzendaria, Tknika, Eusko Jaurlaritza**) azken saioan parte hartu zuen.



[Irakurri gehiago](#) 

LCAMP MUNDUAN



VET SUMMIT 2023 "IMAJINAEZINAREN BIDEAN" EUSKADIN GARATU ZEN

2023ko azaroaren 22 eta 23an, **Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko LHko Sailburuordetzak** Hezkuntzaren eta Prestakuntzaren sektoreko adituak gonbidatu zituen VET Summit 2023era elkartzera, eboluzio teknologiko azkarrean den mundu honetan gizakiak izango duen rolari buruz hausnartzeko.

LCAMPeko bazkide **TKNIKA** (antolatzaileak), **Miguel Altuna LHII**, **Curt Nicolin Bigarren Hezkuntzako Eskola** (Suedia) eta **Kocaeli, Turkiako Hezkuntza Nazionalako Ministerioa** izan ziren besteak beste 23 herrialdetako 400 parte-hartzaile baino gehiagoren artean, eraldaketa digital adimendunaren aukerei, erronkei eta arriskuei buruz elkarrekin eztabaidatzeko.



LCAMPeren familia-argazkia VET Summit-en, Donostian.



Jorge Arévalok Hezkuntza Sailaren euskal estrategia aurkeztu zuen.



Proiektuaren koordinatzaileak Cadena SER irratian hitz egin zuen.



Miguel Altuna LHIik Europako LH zentroen Proiektuen Topaketan aurkeztu zuen proiektua Tknikan.

